

# Peio eta Maddi

**Grabaketa saioa kanpoan : magnetofonoan kanpoko hotsak graba eta muntaia egin ondotik beste gelakoei aurkezteko.**



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Agurtzeko formulak ikas

egun on, bihar arte, agur, ikus arte, adio, ez adiorik...

### Antzerki laburra

Haurrek, binaka edo taldean emanak, agurtzeko formulak antzezten dituzte. Eguneroko ihardueretan ere baliagarri dira.

## Hets/idek

Ikasgelako atea, leihoak, liburuak eta beste gauza asko balia daitezke hitz horien erabiltzeko.

### Paper tolestea

Abere baten ahoa egin eta, idek/hets mugimendua eginaraz.



Agintera

– Idek ezazu/hets ezazu ahoa.

## Aditzaren aspektua

Animalien hotsen inguruan « entzun » aditza eta haren aspektua : -TU/-TZEN :

Haur bakoitzari bi animalia hotsak eginaraz :

- Zer entzun dugu ?
- Xakurraren hotsa egin dut.
- Zer entzuten dugu orain ?
- Zezenaren orroa egiten dut.



## Taldea mugimenduan

Nola egiten du ardiak ?

Nola egiten du behiak ?

Asto, oilo, oilar, unxi (lapin), xakur, gatu, xori... hurrek animalia anitzen orroak egin ditzakete.

Haurrek ikasgelako espazio guzia hartzen dute. Irakasleak animalia izendatzean (adib. behia) jokolariek mimatzen dute.

## Zezenari dagozkion giro eta irudiak

Bilduma bat egin (korrida, San ferminak, ...).



-(R)EN jabe go genitiboa.

Aditzaren aspektua.

- Zuk oiloaren hotsa egin duzu.
- Nik astoaren orroa egiten dut.
- Egin ezazu haizearena.